



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko maiatzaren 6a

60. ZK.

A U R K I B I D E A

D SAILA:

Hitzarmenak:

—11-25/AUT-00002. Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa (2. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—11-25/MOC-00055. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gehienez ere hiru hilabeteko epean aurkez dezan Nafarroarako Gizarteratze Estrategia berri bat. Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordeak onetsi du (14. or.).

—11-25/MOC-00053. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita berehala berrikus dezan 666/2023 Errege Dekretua, albitari-arretaren arlo guztien bideragarritasuna bermatzeko. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak ezetsi du (14. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—GRP-2/23. Úrsula Pardo García andrea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioan sartzea (15. or.).

D saila:
HITZARMENAK

11-25/AUT-00002. Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa

2025eko apirilaren 28an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Bartzarri entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 45.4 artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Gobernuak, 2025eko apirilaren 16ko Erabakiaren bidez, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa igorri dio Nafarroako Parlamentuari.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 187. eta 193. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Agintzea Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa.

2. Xedatzea Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketaren eztabaida eta bozketa Legebiltzarreko Erregelamenduaren 193. artikulua 2. arauan ezarritakoari jarraikiz egingen dela.

Iruñean, 2025eko apirilaren 28an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

HITZARMEN EKONOMIKOAREN NEGOZIAZIO BATZORDEA 1/2025 AKTA

Madrilen/Iruñean, 2025eko apirilaren 11n

Estatuko Administrazioa ordezkatzuz:

Jesús Gascón Catalán jauna, Ogasuneko estatu-idazkaria.

María José Gualda Romero andrea, Aurrekontuen eta Gastuen estatu-idazkaria.

Inés Olóndriz de Moragas andrea, Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundearen Finantzaketaren idazkari nagusia.

Soledad Fernández Doctor andrea, Zerga Administrazioko Estatu Agentziako zuzendari nagusia.

Javier Sánchez Fuentesfría jauna, Aurrekontuen zuzendari nagusia.

María José Garde Garde andrea, Tributuen zuzendari nagusia.

Mónica García Sáenz andrea, Aurrekontu Egonkortasuneko eta Lurraldeko Finantza Kudeaketako zuzendari nagusia.

Nafarroako Foru Komunitatea ordezkatzuz:

José Luis Arasti Pérez jauna, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria.

Oscar Martínez de Bujanda Esténoz jauna, Nafarroako Foru Ogasuneko zuzendari kudeatzailea.

José Javier Esparza Abaurrea jauna, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioa ordezkatzuz.

Ramón Alzórriz Goñi jauna, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioa ordezkatzuz.

Laura Aznal Sagasti andrea, EH-Bildu Nafarroa talde parlamentarioa ordezkatzuz.

Uxue Barkos Berruezo andrea, Geroa Bai talde parlamentarioa ordezkatur.

Carlos Guzmán Pérez jauna, Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioa ordezkatur.

Javier García Jiménez jauna, Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioa ordezkatur.

Bi mila eta hogeita bosteko apirilaren 11n, bazterrean aipatzen direnak bildu dira, Hitzarmen Ekonomikoaren Negoziazio Batzordea osatzen baitute, gai-zerrendan sartutako gaiak jorratzeko.

Bilera hau egin da saio telematiko baten bidez, zeina goizeko 9:00etan hasi eta 11:00etan bukatu baita, oinarri harturik Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 17. artikulua. Artikulu horrek aukera ematen die kide anitzeko organoei eratzeko eta erabakiak hartzeko bitarteko elektronikoak baliatuz.

Aipatu gaiak eztabaidatu ondoren, Batzordeko kide diren bi administrazioek ondoko erabaki hau hartu dute aho batez. ERABAKIA:

Akordio bakarra

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa

Bat.- Onestea Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa, akta honen I. eranskinean dagoena, modu honetan:

– Testu berria, artikulua eta xedapen hauei eman beharrek: hemeretzi, hogeita zortzi, hogeita hamar, hogeita hamar bis, hogeita hamaika, hogeita hamaika bis, hogeita hamaika ter, hogeita hamaika quater, hogeita hamaika quinquies, hogeita hamabi, hogeita hamahiru, hogeita hamabost, hogeita hamabost bis, hogeita hamasei, hogeita hamazazpi, hogeita hemezortzi, berrogei, berrogei ter, berrogei quater, hirurogeita bost, bederatzigarren xedapen gehigarria, lehen xedapen iragankorra, hirugarren xedapen iragankorra eta laugarren xedapen iragankorra.

– Gehitzea hogeita zazpi bis eta hogeita zazpi ter artikulua, baita bi atal ere, artikulua horietako bakoitza sartzeko.

Bi.- Erantsitako testua erakunde eskudunetara gortzea, ondorengo tramitazioa egin dezaten.

I. ERANSKINA

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketak

19. artikulua:

“19. artikulua. Zergaren ordainarazpena.

1. Nafarroako Foru Komunitateari dagokio subjektu pasibo hauen sozietateen gaineko zerga ordainaraztea:

a) Egoitza fiskala Nafarroan izan eta aurreko ekitaldian, osotara, hamabi milioi eurotik beherako eragiketa-bolumena izan dutenak.

b) Soil-soilik Nafarroako lurraldean jarduten duten eta aurreko ekitaldian, osotara, hamabi milioi eurotik gorako eragiketa-bolumena izan dutenak, nonahi dutela egoitza fiskala.

2. Bi lurraldeetan jarduten duten eta aurreko ekitaldian, osotara, hamabi milioi eurotik gorako eragiketa-bolumena izan duten subjektu pasiboek zergak batera ordainduko dituzte bi administrazioetan, nonahi dutela egoitza fiskala. Tributazioa egiten da ekitaldian lurralde bakoitzean egindako eragiketa-bolumenaren proportzioan, hura hurrengo 20. eta 21. artikuluetan ezartzen diren loturapuntuen arabera zehaztuta, eta bi dezimalekin biribildutako portzentaje batean adieraziko da.

3. Aurreko 1. eta 2. apartatuetan xedatutakoaren ondorioetarako, jardueraren hasiera bada, hamabi milioiko kopurua zenbatzeko, hasierako ekitaldian izandako eragiketa-bolumena hartuko da kontuan.

Aurreko paragrafoan aipatutako eragiketa horien bolumena eta tokia zein diren jakin arte, halakotzat hartuko dira, ondorio guztietarako, subjektu pasiboak kalkulatzeko dituenak, jardueraren hasierako ekitaldirako aurrekusi dituen eragiketen arabera.

4. Ekitaldiaren iraupena urtebetetik beherakoa bada, hamabi milioi euroko kopurua zenbatzeko, egindako eragiketarik urte osora proiektatuko dira.

5. Eragiketen bolumena izanzen da subjektu pasiboak bere jardueran egindako ondasun-entregetan eta zerbitzu-emateetan eskuratutako kontraprestazio guztien zenbateko osoa, alde batera utzita balio erantsiaren gaineko zerga eta baliokidetasun-errekargua”.

3 bis atala:

“3 bis atala. Zerga osagarria

27 bis artikulua. Zerga osagarria.

1. Talde multinazional bateko edo talde nazional oso handi bateko kide diren zerga osagarriaren zergadunak Nafarroako foru-araudiaren menpe egonen dira, baldin eta haren zergadunaren ordezkoiari aplikatu behar bazaio sozietateen gaineko zergaren foru-araudia (18. artikuluko arauen arabera) edo, hala badagokio, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarena (28. artikuluan ezarritakoarekin bat), eta baldin eta talde multinazional edo talde nazional oso handi horrek bi talde fiskal baditu aldi berean Espainiako lurraldean; hau da, zerga-kontsolidazioaren foru-araudiari lotutako talde fiskal bat eta lurralde erkideko zerga-kontsolidazioaren araubideari lotutako beste bat.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, sozietateen gaineko zergari edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari dagokionez kontuan hartuko den araudia izanen da zerga osagarriaren sortzapen-egunean bukatzen den edo bukatua dagoen azken zergaldian indarrean dagoena.

Aitzitik, talde multinazional edo talde nazional oso handi horrek ez baditu Espainiako lurraldean bi talde fiskal –zerga-kontsolidazioaren foru-araudiari lotutakoa eta araubide erkideari lotutakoa–, talde horretako kide diren zergadunei Nafarroako foru-araudia aplikatuko zaie, baldin eta talde multinazional edo talde nazional oso handi horren zergadunaren ordezkoiak egoitza fiskala Nafarroan badu. Hala ere, talde horren eragiketa-bolumena hamabi milioitik gorakoa izan bada aurreko ekitaldian, eta ekitaldi horretan eragiketa horien ehuneko 75 edo gehiago lurralde erkidean egin badu, talde horretako kide diren zergadunak lurralde erkideko araudiaren menpe geldituko dira.

Halaber, talde multinazional edo talde nazional oso handi batek ez baditu Espainiako lurraldean bi talde fiskal –zerga-kontsolidazioaren foru-araudiari lotutako eta araubide erkideari lotutakoa–, talde horretako kide diren zergadunei araubide erkidea aplikatuko zaie, baldin eta talde multinazional edo talde nazional oso handi horren zergadunaren ordezkoiak egoitza fiskala lurralde erkidean badu. Hala ere, talde horren eragiketen bolumena hamabi milioitik gorakoa izan bada aurreko ekitaldian, eta ekitaldi horretan eragiketa horien ehuneko 75 edo gehiago Nafarroan egin badu, talde horretako kide diren zergadunak Nafarroako foru-araudiaren menpe geldituko dira.

Aurreko bi paragrafo horietan ezarritakoaren ondorioetarako, taldearen eragiketa-bolumena izanen da Espainiako lurraldean kokatutako entitate eratzaille bakoitzaren eragiketa-bolumenen batura edo metaketa, talde barnean egindako eragiketen ezabaketa bidezkoak egin aurretik. Eragiketa-bolumen horiek zehaztuko dira entitate bakoitzaren sozietateen gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren arabera, eta zergaldi honi dagokionez: zerga osagarriaren sortzapen-egunean bukatzen den edo bukatua dagoen azken zergaldiaren aurreko zergaldia. Halaber, taldeak lurralde bakoitzean egindako eragiketen bolumena izanen da entitate eratzaille bakoitzak lurralde bakoitzean egindako eragiketen batura edo metaketa, talde barnean egindako eragiketen ezabaketa bidezkoak egin aurretik, zeinak ondorio horietarako zehaztuko baitira, sozietateen gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren arabera, aldi bererako.

Nolanahi ere, Estatuak une bakoitzean ezartzen duen araudi berbera aplikatuko da, zergaduna eta zergadunaren ordezkoiak definitzeko eta entitate eratzaille bakoitzari zerga osagarri nazionala, primarioa eta sekundarioa esleitzeko arauak zehazteko.

2. Zergadunaren ordezkoi den entitateak zergaren autolikidazioa aurkeztuko du eta zerga-zorra ordainduko du administrazio eskudunean, apartatu honetan ezarritako arauen arabera.

Zergadun bakoitzaren zerga osagarri nazionala, primarioa edo sekundarioa dagokion administrazio eskudunari (erkideari edo foralari) ordainduko zaio, egoitza fiskalaren arabera, eragiketa-bolumenaren proportzio berean, 19. artikuluan ezarritakoarekin bat. Eragiketa-bolumen hori izanen da sozietateen gaineko zergaren edo, hala badagokio, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren azken zergaldiari dagokiona, zergaldi hori bukatzen bada edo bukatua badago zerga osagarriaren sortzapen-egunean.

Zergadunek, aipatutako zergaldian, talde fiskalen kontsolidazio fiskalaren araubidea aplikatuz tributatu badute sozietateen gaineko zergan edo, hala badagokio, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan, beti talde fiskalaren eragiketa-bolumena hartuko da kontuan.

3. Zergak bi administrazioei ordaintzen zaizkien kasuetan, honako arau hauek aplikatuko dira:

Lehenengoa. Zergaren likidazioen emaitza Estatuko administrazioari eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari inputatuko zaie, aurreko 2. apartatuan ezarritako irizpideei jarraikiz.

Bigarrena. Zergaren autolikidazioa aurkezteko eta zerga-zorra ordaintzeko betebeharra duen zergadunaren ordezkioak bidezko autolikidazioak aurkeztuko ditu, epeen barruan eta arauzko formalitateekin, zerga ordainarazteko eskumena duten administrazioetan. Autolikidazio horietan beti jasoko da zein den aplikatu beharreko proportzioa eta administrazio bakoitzari dagokion kuota.

4. Aitorpen informatiboa eta zerga osagarriaren araudian eskatzen diren gainerako komunikazio eta betebeharrak formalak aurkeztuko dira dagokion administrazioan; hau da, entitate eratzaillearen –edo, hala badagokio, talde multinazionalak edo talde nazional oso handiak izendatutako entitatearen– sozietateen gaineko zerga edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga ikuskatzeko eskumena duen administrazioan.

5. Artikulu honen 1. apartatuan ezarritako arauekin bat aplikatu beharreko araudia zein zerga-administrazioari dagokion, administrazio horrek izanen du subjektu pasiboen gaineko ikuskapenaren eskumena.

Hala ere, aurreko 1. eta 2. apartatuetan adierazitako eragiketa-bolumena egiaztatzeko eskumena lurralde erkideko administrazioak edo foru-administrazioak izanen du, segun eta zer araudi aplikatzen zaien –lurralde erkidekoa ala foru-lurraldekoa– eragiketa-bolumenaren egiaztapena jasaten duen taldeko entitateei sozietateen gaineko zergan, edo, hala badagokio, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan.

Ikuskapen-lanak administrazio eskudunaren araudiari lotuko zaizkio, deusetan ukatu gabe bi zerga-administrazioen arteko lankidetzaz. Ondorio horietarako, administrazio eskudunak laguntza eskatuko die sozietateen gaineko zerga edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga ikuskatzeko eskumena duen administrazio organo ikuskatzaileei, ikuskapen-jarduketak egin behar dituen zerga horiei dagokienez bere eskumenekoak ez diren entitateekin. Txosten batean jasoko da eskumenik ez duen administrazio organo ikuskatzailearen lankidetzaz, baina txosten horrek ez du ondorio loteslerik ekarriko administrazio eskudunarentzat.

Ikuskapen horien ondorioz ordaindu beharreko zor bat edo itzuli beharreko diru-kopuru bat baldin badago, bi administrazioei dagokiena, kobrantza edo ordainketa administrazio jarduleak eginen du, bien artean egin beharreko konpentsazioak ukatu gabe.

Administrazio eskudunak bere jarduketan emaitzen berri emanen dio ukitutako administrazioari.

Aurreko paragrafoetan ezarritakoa gorabehera, Nafarroako Foru Komunitateak ahalmena izanen du bere lurraldean egiaztapenak eta ikerketak egiteko, baina haren jarduketek ez dute ondorio ekonomikorik izanen zergadunentzat, administrazio eskudunetako organoen jarduketan ondorioz egingako behin betiko likidazioei dagokienez.

Administrazio eskudunak egiten dituen egiaztapenetan finkatuko da zerga osagarri nazionalaren, primarioaren eta sekundarioaren zer proportzio dagokion entitate eratzaille bakoitzari, eta ondorioak izanen ditu zergadunarekiko, likidatutako obligazioei dagokienez; horrek ez du ukatzen egiaztapen horien ondotik administrazio eskudunen artean behin betiko proportzioak erabakitzea”.

3 ter atala:

“3 ter atala. Finantza-erakunde jakin batzuen interes- eta komisio-marjinaren gaineko zerga

27 ter artikulua. Finantza-erakunde jakin batzuen interes- eta komisio-marjinaren gaineko zerga.

1. Zergadunak Nafarroako foru-araudiaren menpe egonen dira finantza-erakunde jakin batzuen interes- eta komisio-marjinaren gaineko zergari dagokionez, baldin eta 18. artikulua araberako sozietateen gaineko zergan Nafarroako foru-araudia aplikatu behar bazaie.

Zergaduna baldin bada atzerriko kreditu-erakunde batek Espainiako lurraldean duen sukurtsal bat, zerga horren zergadunei Nafarroako foru-araudia aplikatuko zaie, baldin eta 38. artikulua araberako ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan foru-araudia aplikatu behar bazaie.

2. Zergadunek, nolahi ere, bi administrazioei ordainduko dizkiete zergak, lurralde batean eta bestean egindako eragiketa-bolumenaren arabera.

Ondorio horietarako, lurralde bakoitzean egingako eragiketa-bolumenaren proportzioa izanen da sozietateen gaineko zergaren 19. artikuluan ordainarazpenerako ezartzen dena.

3. Zergak bi administrazioei ordaintzen zaizkien kasuetan, bai zergaren kudeaketa, bai eta ordainketa zatikatuaren diru-sarrera ere, 22. eta 24. artikuluetan ezarritako arauak jarraituz egiten dira.

Egin beharreko itzulketak kasuan kasuko administrazioek egiten dituzte, bakoitzak dagokion zenbatekoarena.

4. Zergaren ikuskapena egiten du artikulua honetako 1. apartatuan ezarritakoaren arabera zergadunarekiko araugintza-eskumena duen admi-

nistrazioak, betiere 23. artikuluan ezarritako arauei jarraikiz”.

28. artikuluko 1. apartatua:

“1. Atzerrian bizi diren pertsona edo entitateen establezimendu iraunkorren bidez lortutako errentak zergapetzen direnean, 18. artikuluan xedatutakoaren arabera zehaztuko da zein araudi aplikatuko den.

Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak zergapetzen direnean, Nafarroako foru-araudia aplikatuko da, baldin eta ondorioztatzen bada errenta horiek Nafarroan lortu edo sortu direla, 29. artikuluan ezarritakoarekin bat. 29. artikuluen 3. apartatuak aipatzen dituen kasuetan, foru-araudia edo araudi erkidea aplikatuko da, kontuan hartuta errenten ordaintzaile diren entitate edo establezimendu iraunkorrei zer araudi aplikatu behar zaien –foru-araudia edo erkidea– sozietateen gaineko zergan edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan, eta ikuskapena eginen dute irizpide hori bera aplikatuz egokitzen den administrazioko organoek. Aurrekoa gorabehera, zergaren ordainarazpenerako eskumena duen administrazioak ezarritako ditu aitorten-likidazioak aurkezteko tokia, modua eta epea zehazteko arauak.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan ordaintzeko aukera izanen da, baldin eta Nafarroako lurraldean lortutako errenta bada Espainian lortutako errenta osoaren zatirik handiena. Zergadunak itzulketarako eskubidea duenean, Foru Komunitateak ordainduko dio, kontuan izan gabe errenta horiek Espainiako zer tokitan lortu diren”.

30. artikuluko 2. apartatua:

“2. Establezimendu iraunkorrik gabe aritzen diren zergadunek lortutako errentei dagozkien atxikipenak eta konturako sarrerak exijituko ditu horiek lortuzat jotzen diren lurraldeko administrazioak, bere araudiaren arabera, aurreko artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Era berean, ikuskapena eginen dute artikuluko horretan berean xedatutakoari jarraikiz dagokion administrazioko organoek.

Aurreko artikuluko 1. apartatuko d) letrako 4. puntuan eta f), g) eta i) letretan aipatzen diren kasuetan, eta 2. apartatuan aurreikusitako kasuan, Foru Komunitateak exijituko ditu, atxikipe-na egin behar duenak Nafarroan izan duen eragiketaren bolumenaren proportzioan, aurreko 3. atalean zehaztutako arauak aplikatuz. Kasu horietan, atxikipenak ordainduko dira foru-araudiari edo araudi erkideari jarraituz, kontuan hartuta entitate edo establezimendu ordaintzaileari zer araudi aplikatu behar zaion –foru-araudia edo erkidea–

sozietateen gaineko zergan edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan. Era berean, ikuskapena eginen dute arestian xedatutakoari jarraikiz araugintza-eskumena duen administrazioko organoek.

Aurrekoa gorabehera, zergaren ordainarazpenerako eskumena duen administrazioak ezarritako ditu aitorten-likidazioak aurkezteko tokia, modua eta epea zehazteko arauak.

30 bis artikulua:

“30 bis artikulua. Zergaren kudeaketa eta ikuskapena.

1. Establezimendu iraunkorren bidez lortutako errentak zergapetzen direnean, zergak bi administrazioei ordaintzen zaizkien kasuetan, 22. artikuluan ezarritako arauak aplikatuko dira zerga kudeatzeko, eta zergaren ikuskapena eginen du 23. artikuluan aurreikusitako arauak aplikatuz eskuduna den administrazioak.

2. Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak zergapetzen direnean, zergaren kudeaketa eta ikuskapena eginen du 28. artikuluan aurreikusitako arauak aplikatuz eskuduna den administrazioak, ezertan ukatu gabe 29. artikuluko 3. apartatuan ezarritakoa”.

31. artikuluko 1.b) apartatua:

“b) Ondasun higiezinak eta haien eskubideak eskuratzean, dohaintzaren bidez edo bizien arteko doako beste edozein negozio juridikoren bidez, ondasun horiek Nafarroako lurraldean daudenean. Ondasun higiezinak atzerrian badaude, dohaintza-hartzaileak ohiko bizilekua Nafarroan duenean. Bestelako ondasun eta eskubideak eskuratzean, dohaintza-hartzaileak edo haien onuradunak ohiko bizilekua lurralde horretan duenean.

Ondorio horietarako, ondasun higiezinaren dohaintzak izanen dira Balore Merkatuei eta Inbertsio Zerbitzuei buruzko martxoaren 17ko 6/2023 Legearen 338. artikuluan aipatzen diren baloreen doako eskualdaketak”.

31 bis artikuluko 1. apartatua:

“1. Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga ordainaraztean, Nafarroako Foru Komunitateak aplikatuko ditu Estatuak unean-unean ezarritako arau substantibo eta formal berberak.

Dena dela, Foru Komunitateak aitortzen eta diru-sarrera egiteko bere ereduak onesten ahalko ditu; eredu horiek, gutxienez, lurralde erkideko ereduaren datu berak eduki behar dituzte. Likidazioaldi bakoitzean diru-sarrera egiteko epeak ere

finkatzen ahalko ditu, Estatuko Administrazioak ezartzen dituenetik asko aldendu gabe. Foru Komunitateak fakturazio- edo erregistro-betebehar formalak betetzeko modu berriak ezartzen baditu aurrerapen teknologikoetan oinarrituta, edo lehendik daudenak aldatzen baditu, zerga honetan eska daitezkeen betebehar formalak eta kudeaketa- eta prozedura-arauak ere ezartzen ahalko ditu, betetzeko modu berrietara egokituta; hori bai, Nafarroak bermatu behar du 5. artikuluan aipatzen den bi administrazioen arteko informazio-trukerako beharrezkoak diren datuen eskuragarritasuna, bai eta horien tratamendua ere”.

31 ter artikulua 1. apartatua:

“1. Estatuak unean-unean ezarritako arau substantibo eta formal berberak aplikatuko ditu Nafarroako Foru Komunitateak, honako zerga hauek ordainaraztean: energia nukleolektrikoa sortzearen ondoriozko hondakin erradiaktiboak eta erregai nuklear gastatua sortzearen gaineko zerga, eta erregai nuklear gastatua eta hondakin erradiaktiboak instalazio zentralizatueta biltegiatzaren gaineko zerga.

Dena dela, Foru Komunitateak aitorpena eta diru-sarrera egiteko bere ereduak onesten ahalko ditu; eredu horiek, gutxienez, lurralde erkideko ereduaren datu berak eduki behar dituzte. Likidazioaldi bakoitzean diru-sarrera egiteko epeak ere finkatzen ahalko ditu, Estatuko Administrazioak ezartzen dituenetik asko aldendu gabe. Foru Komunitateak fakturazio- edo erregistro-betebehar formalak betetzeko modu berriak ezartzen baditu aurrerapen teknologikoetan oinarrituta, edo lehendik daudenak aldatzen baditu, zerga honetan eska daitezkeen betebehar formalak eta kudeaketa- eta prozedura-arauak ere ezartzen ahalko ditu, betetzeko modu berrietara egokituta; hori bai, Nafarroak bermatu behar du 5. artikuluan aipatzen den bi administrazioen arteko informazio-trukerako beharrezkoak diren datuen eskuragarritasuna, bai eta horien tratamendua ere”.

31 quater artikulua 1. apartatua:

“1. Kreditu-entitateetako gordailuen gaineko zerga ordainaraztean, Nafarroako Foru Komunitateak aplikatuko ditu Estatuak unean-unean ezarritako arau substantibo eta formal berberak.

Nolanahi ere, Foru Komunitateak zerga honen karga-tasak ezartzen ahalko ditu, unean-unean lurralde erkidean indarra duten muga eta baldintzekin.

Halaber, Foru Komunitateak aitorpena eta diru-sarrera egiteko bere ereduak onesten ahalko ditu; eredu horiek, gutxienez, lurralde erkideko ereduaren

datu berak eduki behar dituzte. Likidazioaldi bakoitzean diru-sarrera egiteko epeak ere finkatzen ahalko ditu, Estatuko Administrazioak ezartzen dituenetik asko aldendu gabe. Foru Komunitateak fakturazio- edo erregistro-betebehar formalak betetzeko modu berriak ezartzen baditu aurrerapen teknologikoetan oinarrituta, edo lehendik daudenak aldatzen baditu, zerga honetan eska daitezkeen betebehar formalak eta kudeaketa- eta prozedura-arauak ere ezartzen ahalko ditu, betetzeko modu berrietara egokituta; hori bai, Nafarroak bermatu behar du 5. artikuluan aipatzen den bi administrazioen arteko informazio-trukerako beharrezkoak diren datuen eskuragarritasuna, bai eta horien tratamendua ere”.

31 quinquies artikulua 1. apartatua:

“1. Gasa, petrolioa eta kondentsatuak erauztearen balioaren gaineko zerga ordainaraztean, Nafarroako Foru Komunitateak aplikatuko ditu Estatuak unean-unean ezarritako arau substantibo eta formal berberak.

Dena dela, Foru Komunitateak aitorpena eta diru-sarrera egiteko bere ereduak onesten ahalko ditu; eredu horiek, gutxienez, lurralde erkideko ereduaren datu berak eduki behar dituzte. Likidazioaldi bakoitzean diru-sarrera egiteko epeak ere finkatzen ahalko ditu, Estatuko Administrazioak ezartzen dituenetik asko aldendu gabe. Foru Komunitateak fakturazio- edo erregistro-betebehar formalak betetzeko modu berriak ezartzen baditu aurrerapen teknologikoetan oinarrituta, edo lehendik daudenak aldatzen baditu, zerga honetan eska daitezkeen betebehar formalak eta kudeaketa- eta prozedura-arauak ere ezartzen ahalko ditu, betetzeko modu berrietara egokituta; hori bai, Nafarroak bermatu behar du 5. artikuluan aipatzen den bi administrazioen arteko informazio-trukerako beharrezkoak diren datuen eskuragarritasuna, bai eta horien tratamendua ere”.

32. artikulua:

“32. artikulua. Aplikatu beharreko araudia.

“Balio erantsiaren gaineko zerga ordainaraztean, baliokidetasun-errekargua barne, Nafarroak aplikatuko ditu Estatuak lurraldean unean-unean indarra duten oinarrizko printzipio, arau substantibo eta arau formal berberak.

Dena dela, Foru Komunitateak aitorpena eta diru-sarrera egiteko bere ereduak onesten ahalko ditu; eredu horiek, gutxienez, lurralde erkideko ereduaren datu berak eduki behar dituzte. Likidazioaldi bakoitzean diru-sarrera egiteko epeak ere finkatzen ahalko ditu, Estatuko Administrazioak ezartzen dituenetik asko aldendu gabe. Foru

Komunitateak fakturazio- edo erregistro-betebehar formalak betetzeko modu berriak ezartzen baditu aurrerapen teknologikoetan oinarrituta, edo lehendik daudenak aldatzen baditu, zerga honetan eska daitezkeen betebehar formalak eta kudeaketa- eta prozedura-arauak ere ezartzen ahalko ditu, betetzeko modu berrietara egokituta; hori bai, Nafarroak bermatu behar du 5. artikuluan aipatzen den bi administrazioen arteko informazio-trukerako beharrezkoak diren datuen eskuragarritasuna, bai eta horien tratamendua ere”.

33. artikularen 1., 2. eta 4. apartatuak:

“1. Nafarroako Foru Komunitateari dagokio subjektu pasibo hauen balio erantsiaren gaineko zerga ordainaraztea:

a) Egoitza fiskala Nafarroan izan eta aurreko urtean, osotara, hamabi milioi eurotik beherako eragiketa-bolumena izan dutenak.

b) Soil-soilik Nafarroako lurraldean jarduten duten eta aurreko urtean, osotara, hamabi milioi eurotik gorako eragiketa-bolumena izan dutenak, nonahi dutela egoitza fiskala.

2. Bi lurraldeetan jarduten duten eta aurreko urtean, osotara, hamabi milioi eurotik gorako eragiketa-bolumena izan duten subjektu pasiboek zergak batera ordainduko dituzte bi administrazioetan, nonahi dutela egoitza fiskala. Zergak ordainduko dira urte naturalean lurralde bakoitzean egindako eragiketen bolumenaren proportzioan, hura hurrengo zenbakietan ezartzen diren lotura-puntuen arabera zehaztuta, eta bi dezimalekin biribildutako portzentaje batekin adieraziko da”.

“4. Aurreko 1. eta 2. apartatuetan xedatutakoaren ondorioetarako, jardueraren hasiera bada, hamabi milioiko kopurua zenbatzeko, lehen urte naturalean izandako eragiketa-bolumena hartuko da kontuan.

Jardueraren lehen urtea urte naturalarekin bat ez badator, aurreko zifra zenbatzeko, egindako eragiketak urte osora proiektatuko dira.

Urte horretan, zerga-ordainketa behin-behinekoa izanen da, lehen urtean aurreikusten den eragiketa-bolumenaren arabera eginda, ezertan ukatu gabe aurrerago erregularizatzea, bidezkoa bada”.

35. artikuluko 5. apartatua:

“5. Foru Komunitateari dagozkion zerga berezien ordainarazpenean, Foru Komunitateak aplikatuko ditu Estatuako lurraldean unean-unean indarra duten oinarritzko printzipioak, arau substantiboak eta arau formalak.

Nolanahi ere, Nafarroako Foru Komunitateak zerga horien karga-tasak ezartzen ahalko ditu, unean-unean lurralde erkidean indarra duten muga eta baldintzekin.

Halaber, Nafarroako Foru Komunitateak aitorpena eta diru-sarrera egiteko bere ereduak onesten ahalko ditu; eredu horiek, gutxienez, lurralde erkideko ereduaren datu berak eduki behar dituzte. Likidazioaldi bakoitzean diru-sarrera egiteko epeak ere finkatzen ahalko ditu, Estatuako Administrazioak ezartzen dituenetik asko aldendu gabe. Foru Komunitateak fakturazio- edo erregistro-betebehar formalak betetzeko modu berriak ezartzen baditu aurrerapen teknologikoetan oinarrituta, edo lehendik daudenak aldatzen baditu, zerga honetan eska daitezkeen betebehar formalak eta kudeaketa- eta prozedura-arauak ere ezartzen ahalko ditu, betetzeko modu berrietara egokituta; hori bai, Nafarroak bermatu behar du 5. artikuluan aipatzen den bi administrazioen arteko informazio-trukerako beharrezkoak diren datuen eskuragarritasuna, bai eta horien tratamendua ere”.

35 bis artikularen 1. apartatua:

“1. Berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga berezia ordainaraztean, Nafarroako Foru Komunitateak aplikatuko ditu Estatuak unean-unean ezarritako arau substantibo eta formal berberak.

Dena dela, Foru Komunitateak aitorpena eta diru-sarrera egiteko bere ereduak onesten ahalko ditu; eredu horiek, gutxienez, lurralde erkideko ereduaren datu berak eduki behar dituzte. Likidazioaldi bakoitzean diru-sarrera egiteko epeak ere finkatzen ahalko ditu, Estatuako Administrazioak ezartzen dituenetik asko aldendu gabe. Foru Komunitateak fakturazio- edo erregistro-betebehar formalak betetzeko modu berriak ezartzen baditu aurrerapen teknologikoetan oinarrituta, edo lehendik daudenak aldatzen baditu, zerga honetan eska daitezkeen betebehar formalak eta kudeaketa- eta prozedura-arauak ere ezartzen ahalko ditu, betetzeko modu berrietara egokituta; hori bai, Nafarroak bermatu behar du 5. artikuluan aipatzen den bi administrazioen arteko informazio-trukerako beharrezkoak diren datuen eskuragarritasuna, bai eta horien tratamendua ere”.

36. artikuluko 1. apartatua:

“1. Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zerga ordainaraztean, Nafarroako Foru Komunitateak aplikatuko ditu Estatuak unean-unean ezarritako arau substantibo eta formal berberak.

Dena dela, Foru Komunitateak aitorpena eta diru-sarrera egiteko bere ereduak onesten ahalko

ditu; eredu horiek, gutxienez, lurralde erkideko ereduaren datu berak eduki behar dituzte. Likidazioaldi bakoitzean diru-sarrera egiteko epeak ere finkatzen ahalko ditu, Estatuako Administrazioak ezartzen dituenetik asko aldendu gabe. Foru Komunitateak fakturazio- edo erregistro-betebehar formalak betetzeko modu berriak ezartzen baditu aurrerapen teknologikoetan oinarrituta, edo lehendik daudenak aldatzen baditu, zerga honetan eska daitezkeen betebehar formalak eta kudeaketa- eta prozedura-arauak ere ezartzen ahalko ditu, betetzeko modu berrietara egokituta; hori bai, Nafarroak bermatu behar du 5. artikuluan aipatzen den bi administrazioen arteko informazio-trukerako beharrezkoak diren datuen eskuragarritasuna, bai eta horien tratamendua ere”.

37. artikuluko 5. apartatua:

“5. Zerga ordainaraztean, Nafarroako Foru Komunitateak aplikatuko ditu Estatuak unean-unean ezarritako arau substantibo eta formal berberak.

Hala ere, Foru Komunitateko Administrazioak aitorpena eta diru-sarrera egiteko bere ereduak onesten ahalko ditu eta diru-sarrera egiteko epeak ezarri, Estatuako Administrazioak ezartzen dituenetik asko aldendu gabe. Foru Komunitateak fakturazio- edo erregistro-betebehar formalak betetzeko modu berriak ezartzen baditu aurrerapen teknologikoetan oinarrituta, edo lehendik daudenak aldatzen baditu, zerga honetan eska daitezkeen betebehar formalak eta kudeaketa- eta prozedura-arauak ere ezartzen ahalko ditu, betetzeko modu berrietara egokituta; hori bai, Nafarroak bermatu behar du 5. artikuluan aipatzen den bi administrazioen arteko informazio-trukerako beharrezkoak diren datuen eskuragarritasuna, bai eta horien tratamendua ere”.

38. artikuluko 1. apartatuaren A) letrako 1. puntua:

“1. Ondasun higiezinaren kostu bidezko eskualdaketan eta errentamenduetan, bai eta horien gaineko mota guztietako eskubideen kostu bidezko lagapenean, berme eskubideena barne, ondasunak Nafarroan daudenean.

Ondorio horietarako, ondasun higiezinaren eskualdaketak izanen dira Balore Merkaturak eta Inbertsio Zerbitzuei buruzko martxoaren 17ko 6/2023 Legearen 338. artikuluan aipatzen diren baloreen doako eskualdaketak”.

40. artikuluko 7. eta 8. apartatuak:

“7. Joko-jardueren gaineko zerga ordainaraztean, Nafarroako Foru Komunitateak aplikatuko ditu

Estatuak unean-unean ezarritako arau substantibo eta formal berberak.

Aurrekoa gorabehera, Nafarroako Foru Komunitateak zerga honen tasak handitzen ahalko ditu, Estatuak unean-unean ezarritako dituen tasen ehuneko 20, gehienez ere, baldin eta jarduera horien operadoreek, antolatzaileek edo zergapeko jarduera horiek garatzen dituztenek egoitza fiskala Nafarroan badute. Igoera hori aplikatuko zaio, soilik, egoitza fiskala Nafarroako lurraldean duteneko jokoan izandako partaidetzari dagokion zerga-oinarriaren zati proportzionalari.

Halaber, Nafarroako Foru Komunitateak aitorpena eta diru-sarrera egiteko bere ereduak onesten ahalko ditu; eredu horiek, gutxienez, lurralde erkideko ereduaren datu berak eduki behar dituzte. Likidazioaldi bakoitzean diru-sarrera egiteko epeak ere finkatzen ahalko ditu, Estatuako Administrazioak ezartzen dituenetik asko aldendu gabe. Foru Komunitateak fakturazio- edo erregistro-betebehar formalak betetzeko modu berriak ezartzen dituen aurrerapen teknologikoetan oinarrituta, edo lehendik daudenak aldatzen dituen aurrerapen teknologikoetan oinarrituta, edo lehendik daudenak aldatzen dituen aurrerapen teknologikoetan oinarrituta, zerga honetan eska daitezkeen kudeaketa- eta prozedura-arauak eta betebehar formalak ere ezartzen ahalko ditu, betetzeko modu berrietara egokituta; hori bai, Nafarroak bermatu behar du 5. artikuluan aipatzen den bi administrazioen arteko informazio-trukerako beharrezkoak diren datuen eskuragarritasuna, bai eta horien tratamendua ere.

8. Joko-jardueren gaineko zergaren ikuskapen-lanari dagokionez, subjektu pasiboaren helbide fiskala edo haren ordezkariarena –egoiliarrek ez diren subjektu pasiboen kasuan– zein administrazioetan dagoen, haren organoek egiten dute, baina horrek ez du eragotziko zergarekin zerikusia duten gainerako zerga-administrazioen lankidetzak. Ikuskapenak ondorioak izanen ditu administrazio eskudun guztietan, haiei dagokien tributazio-proportzioa barne harturik.

Nolanahi ere, helbide fiskala Nafarroako lurraldean duten subjektu pasiboen ikuskapena Estatuako Administrazioak egiten du honako kasu honetan: aurreko urtean jokaturako kopuruen zenbateko metatua 12 milioi eurotik gorakoa denean, eta horietatik lurralde erkidean jokaturako proportzioa, 3. apartatuan zehazturako lotura-puntuei jarraikiz, ehuneko 75koa edo handiagoa denean.

Era berean, egoitza fiskala lurralde erkidean duten subjektu pasiboen ikuskapena Nafarroako Foru Komunitateak egiten du honako kasu honetan: aurreko urtean jokaturako kopuruen zenbateko metatua 12 milioi eurotik gorakoa denean, eta

eragiketa guztiak, 3. apartatuan zehaztutako lotura-puntuei jarraikiz, Nafarroako lurraldean eginak direnean.

Ikuskapen-jardueren ondorioz ordaindu beharreko zor bat edo itzuli beharreko diru-kopuru bat baldin badago, bi administrazioei dagokiena, kobrantza edo ordainketa administrazio jarduleak egingen du, bien artean egin beharreko konpentsazioak galarazi gabe.

Ikuskapen-organo eskudunek beren jarduketan emaitzak jakinaraziko dizkiete ukitutako gainerako administrazioei.

Aurreko paragrafoetan ezarritakoa gorabehera, Nafarroako Foru Komunitateak ahalmena izanen du bere lurraldean egiaztapenak eta ikerketak egiteko, baina haren jarduketek ez dute ondorio ekonomikorik izanen zergadunentzat; hau da, ez dituzte aldatuko administrazio eskudunetako organoek egindako behin betiko likidazioak.

Administrazio eskudunak egiaztapenetan ezartzen dituen proportzioek ondorioak izanen dituzte subjektu pasiboarengan, likidatutako betebeharrei dagokienez, baina horrek ez du galarazten egiaztapen horien ondotik bi administrazioen artean behin betiko proportzioak adostea”.

40 ter artikulua 1. apartatua:

“1. Zenbait zerbitzu digitalen gaineko zerga ordainaraztean, Nafarroako Foru Komunitateak aplikatuko ditu Estatuak unean-unean ezarritako arau substantibo eta formal berberak.

Dena dela, Foru Komunitateak aitortpena eta diru-sarrera egiteko bere ereduak onesten ahalko ditu; eredu horiek, gutxienez, lurralde erkideko ereduak datu berak eduki behar dituzte. Likidazioaldi bakoitzean diru-sarrera egiteko epeak ere finkatzen ahalko ditu, Estatuak Administrazioak ezartzen dituenetik asko aldentu gabe. Foru Komunitateak fakturazio- edo erregistro-betebehar formalak betetzeko modu berriak ezartzen baditu aurrerapen teknologikoetan oinarrituta, edo lehenetik daudenak aldatzen baditu, zerga honetan eska

daitezkeen betebehar formalak eta kudeaketa- eta prozedura-arauak ere ezartzen ahalko ditu, betetzeko modu berrietara egokituta; hori bai, Nafarroak bermatu behar du 5. artikuluan aipatzen den bi administrazioen arteko informazio-trukerako beharrezkoak diren datuen eskuragarritasuna, bai eta horien tratamendua ere”.

40 quater artikulua 2. apartatua:

“2. Zerga ordainaraztean, Nafarroako Foru Komunitateak aplikatuko ditu Estatuak unean-unean ezarritako arau substantibo eta formal berberak.

Nolanahi ere, Foru Komunitateak zerga honen karga-tasak handitzen ahalko ditu, unean-unean lurralde erkidean indarra duten muga eta baldintzekin.

Halaber, Foru Komunitateak autolikidazioa eta diru-sarrera egiteko bere ereduak onesten ahalko ditu; eredu horiek, gutxienez, lurralde erkideko ereduak datu berak eduki behar dituzte. Likidazioaldi bakoitzean diru-sarrera egiteko epeak ere finkatzen ahalko ditu, Estatuak Administrazioak ezartzen dituenetik asko aldentu gabe. Foru Komunitateak fakturazio- edo erregistro-betebehar formalak betetzeko modu berriak ezartzen baditu aurrerapen teknologikoetan oinarrituta, edo lehenetik daudenak aldatzen baditu, zerga honetan eska daitezkeen betebehar formalak eta kudeaketa- eta prozedura-arauak ere ezartzen ahalko ditu, betetzeko modu berrietara egokituta; hori bai, Nafarroak bermatu behar du 5. artikuluan aipatzen den bi administrazioen arteko informazio-trukerako beharrezkoak diren datuen eskuragarritasuna, bai eta horien tratamendua ere”.

65. artikuluko 2. apartatua:

“2. Fabrikazio-zerga bereziengatik (hauen gainekoak: alkohola, edari eratorriak eta tarteko produktuak; garagardoa; hidrokaburoak; tabakogaiak; eta zigarreta elektronikoetarako likidoak eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuk) Nafarroan benetan bildutakoari gehituko zaio adierazpen matematiko hauen emaitza:

a) Alkohola, edari eratorriak eta tarteko produktuak:

$$\text{Doikuntza} = a \text{ RR}_{\text{AD}} + (a - b) \text{ H}$$

Azalpena:

$$\text{H} = \text{RR}_{\text{TC}} + \text{RR}_{\text{N}}$$

RR_{TC} = Alkoholaren eta edari eratorrien eta tarteko produktuen gaineko fabrikazio-zerga bereziagatik lurralde erkidean jasotzen den urteko egiazko bilketa.

RR_{N} = Alkoholaren eta edari eratorrien eta tarteko produktuen gaineko fabrikazio-zerga bereziagatik Nafarroan jasotzen den urteko egiazko bilketa.

RR_{AD} = Alkoholaren eta edari eratorrien eta tarteko produktuen gaineko fabrikazio zerga-bereziagatik inportazioen ondorioz jasotzen den urteko egiazko bilketa.

$$a = \frac{\text{Kontsumoa Nafarroan}}{\text{Kontsumoa Estatuan} \\ (\text{Ceuta eta Melilla kenduta})}$$

$$b = \frac{\text{RR}_{\text{N}}}{\text{RR}_{\text{TC}} + \text{RR}_{\text{N}}}$$

b) Garagardoa:

$$\text{Doikuntza} = a \text{ RR}_{\text{AD}} + (a - b) \text{ H}$$

Azalpena:

$$\text{H} = \text{RR}_{\text{TC}} + \text{RR}_{\text{N}}$$

RR_{TC} = Garagardoaren gaineko fabrikazio-zerga bereziagatik lurralde erkidean jasotzen den urteko egiazko bilketa.

RR_{N} = Garagardoaren gaineko fabrikazio-zerga bereziagatik Nafarroan jasotzen den urteko egiazko bilketa.

RR_{AD} = garagardoaren gaineko fabrikazio zerga-bereziagatik inportazioen ondorioz jasotzen den urteko egiazko bilketa.

$$a = \frac{\text{Kontsumoa Nafarroan}}{\text{Kontsumoa Estatuan} \\ (\text{Ceuta eta Melilla kenduta})}$$

$$b = \frac{\text{RR}_{\text{N}}}{\text{RR}_{\text{TC}} + \text{RR}_{\text{N}}}$$

c) Hidrokarburoak:

$$\text{Doikuntza} = a \text{ RR}_{\text{AD}} + (a - b) H$$

Azalpena:

$$H = \text{RR}_{\text{TC}} + \text{RR}_{\text{N}}$$

RR_{TC} = Hidrokarburoen gaineko zerga bereziagatik lurralde erkidean jasotzen den urteko egiazko bilketa.

RR_{N} = Hidrokarburoen gaineko zerga bereziagatik Nafarroan jasotzen den urteko egiazko bilketa.

RR_{AD} = Hidrokarburoen gaineko zerga bereziagatik inportazioen ondorioz jasotzen den urteko egiazko bilketa.

$$a = \frac{\text{Kontsumoa Nafarroan}}{\text{Kontsumoa Estatuan}} \\ (\text{Kanariak, Ceuta eta Melilla kenduta})$$

$$b = \frac{\text{RR}_{\text{N}}}{\text{RR}_{\text{TC}} + \text{RR}_{\text{N}}}$$

d) Tabako-gaiak:

$$\text{Doikuntza} = a \text{ RR}_{\text{TC}} - [(1 - a) \text{RR}_{\text{N}}]$$

Azalpena:

RR_{TC} = Tabako-gaien gaineko zerga bereziagatik lurralde erkidean jasotzen den urteko egiazko bilketa.

RR_{N} = Tabako-gaien gaineko zerga bereziagatik Nafarroan jasotzen den urteko egiazko bilketa.

$$a = \frac{\text{Nafarroan kokatutako tabako- saltokiei banatutako tabako- gaiak}}{\text{Zerga hori aplikatzen den lurraldeko tabako- saltokiei banatutako tabako- gaiak}}$$

e) Zigarreta elektronikoetarako likidoak eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuk:

$$\text{Doikuntza} = a \text{ RR}_{\text{AD}} + (a - b) H$$

Azalpena:

$$H = \text{RR}_{\text{TC}} + \text{RR}_{\text{N}}$$

RR_{TC} = Zigarreta elektronikoetarako likidoen eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen gaineko zerga bereziagatik lurralde erkidean jasotzen den urteko egiazko bilketa.

RR_{N} = Zigarreta elektronikoetarako likidoen eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen gaineko zerga bereziagatik Nafarroan jasotzen den urteko egiazko bilketa.

RR_{AD} = Zigarreta elektronikoetarako likidoen eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen gaineko zerga bereziagatik inportazioen ondorioz jasotzen den urteko egiazko bilketa.

$$a = \frac{\text{Kontsumoa Nafarroan}}{\text{Kontsumoa Estatuan}} \\ (\text{Kanariak, Ceuta eta Melilla kenduta})$$

$$b = \frac{\text{RR}_{\text{N}}}{\text{RR}_{\text{TC}} + \text{RR}_{\text{N}}}$$

Bederatzigarren xedapen gehigarria:

“Bederatzigarren xedapen gehigarria.

Estatuko Administrazioak errazago biltzeko aduanek likidatutako balio erantsiaren gaineko zergaren kuota, eta Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko koordinazio- eta lankidetzakonpromisoa betetzeko (hitzarmen honen 5. artikuluan 1. apartatua jasotzen da konpromiso hori), zerga-administrazioek mekanismoak adosten ahalko dituzte, zerga osoa Estatu Administrazioan ordaintzen ez duten subjektu pasiboentzat errazagoa izan dadin diru-sarrera geroratzeko sistema erabiltzea (sistema hori aurreikusten da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 74.1 artikuluan)”.

Lehen xedapen iragankorra:

“Lehen xedapen iragankorra.

“Hitzarmen honen 19., 33. eta 40. artikuluetan egindako aldaketak aplikatuko zaizkie 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zerga- edo likidazio-aldiei (zergaren arabera)”.

Hirugarren xedapen iragankorra:

“Hirugarren xedapen iragankorra.

Zigarreta elektronikotarako likidoen eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen gaineko zerga-bilketari dagokionez, jakiteko ea Estatu

Administrazioa ala Nafarroako Foru Komunitatea arduratuko den produktu horiek edukitzeagatik sortzen den zerga ordainarazteaz, kontuan hartuko da zerga hori indarrean jartzen den egunean produktu horiek non dauden biltegiak helburu komertzialekin”.

Laugarren xedapen iragankorra:

“Laugarren xedapen iragankorra.

Aldi baterako, harik eta Nafarroan eta zerga aplikatzen den gainerako lurraldean kontsumitzen diren zigarreta elektronikotarako likidoen eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen balioari buruzko urteko informazioa eduki arte, Nafarroan zigarreta elektronikotarako likidoen eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen gaineko zergaren bidez benetan bildutakoari gehituko zaio honako hauen arteko aldea: batetik, zigarreta elektronikotarako likidoen eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen gaineko zergaren bidez lurralde erkidean benetan bildutakoari Nafarroan kokatutako tabako- eta tinbre-saltokiei banatutako tabako-gaien balioari urtero dagokion ehuneko aplikatzearen emaitza, eta, bestetik, tabako-gaien gaineko zerga aplikatzen den lurraldean establezimendu horiei banatutako tabako-gaien balioaren gainean, aurrez zehaztutako bilketari ehuneko osagarria ehunean aplikatzearen emaitza.”

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-25/MOC-00055. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gehienez ere hiru hilabeteko epean aurkez dezan Nafarroarako Gizarteratze Estrategia berri bat

ESKUBIDE SOZIALETAKO, EKONOMIA SOZIALEKO ETA ENPLEGUKO BATZORDEAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordeak 2025eko apirilaren 29an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gehienez ere hiru hilabeteko epean aurkez dezan Nafarroarako Gizarteratze Estrategia berri bat. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gehienez ere hiru hilabeteko epean aurkez dezan Nafarroarako Gizarteratze Estrategia berri bat”.

Iruñean, 2025eko apirilaren 29an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

11-25/MOC-00053. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita berehala berrikus dezan 666/2023 Errege Dekretua, albaitari-arretaren arlo guztien bideragarritasuna bermatzeko

LANDA GARAPENEN ETA INGURUMENEN BATZORDEAK EZETSI DU

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak, 2025eko apirilaren 30ean egindako bilkuran, ezetsi egin du Félix Zapatero Soria jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita berehala berrikus dezan 666/2023 Errege Dekretua, albaitari-arreta-

ren arlo guztien bideragarritasuna bermatzeko. Mozioa 2025eko apirilaren 4ko 43. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

GRP-2/23. Úrsula Pardo García andrea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioan sartzea

2025eko apirilaren 28an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledunak idazki bat aurkeztu du 2025eko apirilaren 25ean. Horren bidez, jakinarazten du foru parlamentari Úrsula Pardo García andreak aipatu talde parlamentarioan sartu nahi duela, eta eskaera horrekin ados dagoela.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 35. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Jakintzat ematea foru parlamentari Úrsula Pardo García andrea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioan sartuko dela.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko apirilaren 28an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

